

KANALAK


Eremu honetan gure zerbitzua aurrera eramaten lagunduko diguten hainbat enpresa eta enpresaburu zehaztuko ditugu, gure zerbitzua ahalik eta jende gehiagora iritsi eta honen berri izan dezaten. Hori posible izan dadin gure enpresak kanal zehatz batzuk erabiliko ditu.



Gure zerbitzua ezagutzera eramaten gaituen kanal garrantzitsuena komunikabideen kanala da. Hau da, Urretxu eta Zumarragako udaletako web orrietan gure gimnasioaren publizitatea egingo dugu. Egunkarietan (Otamotz, Goiberri, Berria, Naiz, El diario vasco...), Zumarragako atalean kronika bat jarritz, eta irratietan (Gaztea, KKinZona) ere jarriko dugu publizitatea, herriko jendeak gure zerbitzuari buruz kontzientziatzeko eta baita Euskal Herri mailan gure gimnasioaren oihartzuna egin eta jendeari ezagutzera emateko. Horrela herriko biztanleak honi buruz jabetu eta gure gimnasia erakarriko ditugu, izan ere, gure helburua herriari eta udalari onura ekartzea da, jendeak kirola egiten duen bitartean.

Gure zerbitzua egiaztatzeko eta gure gimnasioari hasiera emateko, spinning-eko klase bat antolatuko dugu, bizikleten pedaleei emanez herriko farolak argiztatzeko. Honen asmoa jendeak gure zerbitzua egiaztat hartu eta herriei onurak ekartzeko kontzientziatzea da, gure gimnasia joanez eta lagunduz.

Eta aurrekoarekin bat eginez, gabonetako argiztapenari hasiera emanez, urtero ospatuko dugu spinning-eko klase bat, gabonei hasiera eman eta gure herriari, ilusioz beterik, argia emateko.



Iragarkian gure gimnasia buruzko informazio deigarri eta garrantzitsua jarriko dugu, adibidez, honen onurak herriarentzat, ordutegia, bertan izan ditzazkezun aukera sorta guztiak...

Erabiliko dugun beste kanal bat, sare sozialak izango dira. Erakarri nahi ditugun bezeroen artean, gazteak ere nahi ditugu etortzea, eta hauengana gehiago hurbiltzeko, Instagrameko kontu pertsonal bat sortuko dugu. Izan ere, gaur egun sare-sozialak dira informazio iturri garrantzitsuenetarikoak. Bertan, zerbitzuari buruzko informazioa egongo da, eta publizitate moduan ere erabil dezakegu. Facebookeko kontu bat ere sortuko dugu, izan ere,



helduagoak diren herritarrak sare sozial honetan asko ibiltzen dira eta horrela adin guztietako jendea etorriko da gure gimnasia.

Gure zerbitzua herritarrengana iristeko erabiliko dugun beste publizitate mota bat, kaletik kartelak jartzea izango da. Beste ekintza eta zerbitzuak iragartzeko erabiltzen den modua da, eta nahiko ondo funtzionatzen du. Udal egitarauetan ere, zerbitzuaren informazioa ipiniko dugu. Kartelak guk diseinatuko ditugu, ahalik eta deigarrienak izango dira bezeroak lortzeko.

Eta gainera, webgune bat sortuko dugu, horrela interesa duten herritarrak bertan sartu daitezke informazio gehiagoren bila. Gure webgunearen helbidea hau da: www.mlngimnasioa.eus. Edozein duda izanda, webgunera sartu edo gimnasioko telefonora deitu informazio gehiago jasotzeko. Ala ere, oraindik bezero ez direnentzat eta gure zerbitzuan interesatuta daudenentzako, sarreran beti langile bat egongo da gure zerbitzuari buruz informazioa eskaintzeko, dudak argitzeko, bazkide egiteko... Hau da, gure gimnasioa ondo ezagutzera emateko. Telefono mugikor bat ere izango dugu, gure webgunean aurki daiteke, eta bertatik edozein zalantza edo beharrezko informazio eskeini eta zalantzak argitzen lagunduko dugu.

Bukatzeko, gure zerbitzua Zumarragan egongo da kokatuta. Horrela Urretxuko biztanleak etortzeko aukera izango dute. Gainera, argindarra bi herrietan erabili daiteke. Webgunean gure gimnasioaren helbidea jarriko dugu, horrela interesatuta daudenak erraz joan daitezke.

